

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Gizarte etxeak

Udaleko Etika Komitea izendatzeko dekretua

2016ko maiatzetik 2018ko urtarrilera, barneko parte-hartze prozesu bat egin zen Gasteizko Udalean Kode Etiko bat egiteko.

2018ko ekainaren 22ko ezohiko saioan, udalbatzak aho batez onartu zuen Kode Etikoa, Udaleko lanean, balio etikoei lotuta sortutako gatazkei buruz egin beharrekoetarako eta hartu beharreko erabakietarako gida izan zedin.

Saio hartan bertan, talde politiko guztiek hartu zuten konpromisoa Udaleko Etika-komitea (UEK) sortzen eta abian izaten laguntzeko, Kode Etikoa aplikatzeko, eta hasieran Komitea sortzea eta ondoren berritzea sustatutako pertsonak bertan parte hartzeko tresna izan zedin.

Udaleko Etika Komitea eratzeko dekretuan eta hori arautzeko esparruan jasota dagoenez, Udaleko Etika-komitean parte hartzea borondatezkoa izango da eta nor bere izenean hartuko du parte, ez talde, kolektibo edo udal-arlo bat ordezkatzuz. Komitean parte hartzeko erabakia berariaz eta bertan jarraitzeko konpromisoarekin gauzatuko da.

Orobat, Etika-komiteko kideek eskakizun hauek bete behar dituzte:

- Etika-gaiekiko interesa erakutsi.
- Etikan eta eztabaidarako metodologian oinarritzko prestakuntza badutela egiaztatu.
- Kode Etikoarekin bat egiten dutela sinatu.
- Berariazko eta borondatezko eskaera egin.
- Komiteko kide-kargua modu egokian eta leialtasunez betetzeko konpromisoa hartu.
- Etikari eta eztabaidarako metodologiari buruzko etengabeko prestakuntza jasotzeko konpromisoa hartu.
- Eskuratzen duten informazioaren konfidentziasuna zaintzeko konpromisoa hartu, ki-deen arteko eztabaidak sekretupean edukitzeko.

Udaleko Etika-komitean parte hartzea eskatu dutenek betetzen dituzte betekizun horiek.

Iritsi da Udaleko Etika-komitea osatuko duten pertsonak izendatzeko unea, aholkularitza eskaintzeko Udaleko langileei balio-gatazkak sortzen direnean, erabakiak hartzen laguntzeko eta jardunbide egokiak indartu eta sustatuko dituzten lan egiteko moduak ahalbidetzeko.

2016ko apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 4.2 artikulua arabera, udalerrietako eta gainerako tokiko entitateetako zuzendaritza politikoa eta gobernu-ekintza, besteak beste, autoantolaketaren printzipioan oinarrituta garatuko da; baita etika publikoaren eta gobernu onaren printzipioetara egokitzearen printzipioan oinarrituta ere. Horri 10.1 artikulua gehitzen dio udalerriek, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean ezarritakoa betez, haien kabuz ezarriko dituztela haien eskumenak gauzatzeko behar dituzten antolaketak

eta egitura administratiboak eta instrumentalak, gobernu onaren eta administrazio onaren printzipioak gauzatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen lehen xedapen gehigarriak honela definitzen ditu Alkatetzaren dekretuak eta jarraibideak: "Alkateak bere eskumenen esparruan emandako xedapen orokorrak, antolaketa izaerakoak zein gizarte-antolamendukoak. Azken kasu horretan, udalbatzak onartutako erregelamenduak eta ordenantzak betearazteko".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 124. artikulua, bestalde, alkateari esleitzen dizkio funtzio hauek: b) Udalerriko politika, gobernu eta administrazioa zuzentzea; c) Udal-gobernuaren ekintzaren jokabide nagusiak ezartzea eta ekintza horrek jarraituko duela ziurtatzea; g) Bandoak, dekretuak eta jarraibideak ematea; i) Udal-administrazioaren zerbitzura dauden langileen goi-zuzendaritza betetzea; eta k) Udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzea.

Horregatik, arau horiek ikusita,

XEDATU DUT

1. Honako hauek Udaleko Etika-komiteko kide izendatzea:

María Azucena Alonso Alonso

Manuela Alvarez Prieto

Mirian Arenaza Lamo

Ana Bazterrica Mancebo

Boni Cantero Sevilla

Debora De Souza Pinto

Ana María García Alvarez

Joseba Andoni García-Ardanaz Ardanaz

Laura Garrido Barrera

Ana Gutierrez Solana

Jose Antonio Haro Romero

Jesús María Imaz Manzanos

Josu López Díaz de Garayo

Eusebio Martín Macho Pérez

María Valvanera Manzanedo Gómez

Raúl Martínez Ortega

Manuela Merino Peñas

Francisco Javier Miguel Rodríguez

Amaya Mugica Recalde

Ruth Oliva Miranda

María Pilar Ortiz Sobrino

Jessica Resurrección Barrera

Reina Ruiz Bobes

Miren Bakarne Sáez de Asteasu García

Miren Zuriñe Sanz López de Heredia
María Esther Urarte Martínez de Lagrán
Ana Vallejo Iriarte

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 27an

Alkatea

GORKA URTARAN AGUIRRE